


Eibarko Eskribautzaren Azpi-fondoa



Identifikazioa

Erreferentzia-kodea

ES20600AME_EE

Titulua

Eibarko Eskribautzaren Azpi-fondoa

Data

1537 - 1866

Deskribapen-maila

02 - Azpi-fondoa

Bolumena

40 ml.

Testuingurua

Ekoiilea

Eskribauak: Sebastián Pérez de Marzana, Lope de Iñarra, Cristobal de Sugadi, Domingo Lopez de Ibarra, Sebastián de Zumaran, Martín Lopez de Ibarra, Juan Antonio de Sasiain, Lorenzo Ignacio de Arguiano, Sebastián de Eguiguren, Félix de Aramburu, Juan Cruz de Aramburu, Salvador Antonio de Lecuona, José María de Arriola, Bartolomé de Ibarzabal, Rafael del Rey, José Joaquín de Osoro, León de Basterra.

Artxiboaren historia

1902an, Notariotzako Erregistroen Legearen inguruan Justizia Ministerioak emandako agindu bat betez, haxe eskatu zieten barruti bakoitzeko notario-artxibozainei: beren numeriak kontzeju bakoitzean zituzten garai bateko eskribauen protokoloak ateratzeko beren auzitegi-barrutiko herri guztietako udal artxiboetatik eta haien barrutiko Justizia Jauregian uzteko. Izan ere, notariotzak, aurrerantzean, ministerio horren pean egon behar zuen zuzenean. Lan hori, Debarroan, Benito Mendizabal Urrutia jaunak egin behar izan zuen, auzitegi-barrutiko notario-artxibozainak; baina hark, notariotzako dokumentazioa ez ezik, protokolo horiek gordeta zeuden artxibokoko beste paper batzuk ere atera zituen, udalena beraienak. Izan ere, dokumentazio guztia batera zegoen, bereizi gabe.

1944ko uztailean, hainbat aldaketa politiko eta hainbat legegintza-aldaketa gertatu ondoren, Protokoloen Artxiboaren Gipuzkoako Patronatuak esan zuen auzitegi-barruti bakoitzeko Justizia Jauregian zeuden protokolo guztiak antolatuko zituztela eta Oñatira eramango zituztela. Bergarakoak etxe bateko ganbaran zeuden gordeta, deskuidatuta ateratako udal dokumentazioarekin batera.

1945ean eraman zuten aipatutako dokumentazio hori Oñatira. Kontua da 1830. urtera arteko protokoloak bakarrik eraman behar zirela, baina notarioak 1875era artekoak bidaltzea erabaki zuen. Protokoloak bereizteko lan horretan, berehala ohartu ziren tartean bazirela protokoloekin zerikusirik ez zuten hainbat orri sorta, pergamino-itxurakoak batzuk eta sokaz lotuak beste batzuk. Besteak beste, kaparetasun kontuei buruzkoak ziren, auziei buruzkoak, jurisdikzio kriminalekoak, eta kontuak, ordenantzak eta kontzejuen bilerak jasotzen dituzten beste batzuei buruzkoak. Horiek, beraz, aurkitu zituzten tokian laga zituzten; ganbara hartan, alegia. Han egon ziren 1982ko abendura arte. Orduan, Bergarako Justizia Jauregia eraberritzen hasi ziren. Beraz, hala epaitegiak nola artxibo judiziala eta notariala Rekalde jauregira eraman zituzten eraberritze-lanak amaitu bitartean. Lan horiek amaituta, 1986ko bigarren seihilekoan, epaitegiak eta artxiboak berez zegokien tokira itzuli ziren. Baina, handik gutxira, notariotzako artxiboa epaitegitik lehenbailehen ateratzeko eskatu zion instrukzioko epaileak notarioari. Hala, notariotzak lokal bat hartu zuen artxiboa gordetzeko eta hara eraman zuen dokumentazioa, baina udalen orri sorta zaharrak zeuden tokian laga zituen, ez baitzegozkion berari. Dokumentazio zahar hori, han erabat utzita zegoela baina handik lehenbailehen ateratzeko beharra izanik, Bergarako Udalaren lokaletara eraman zuten. 2006ko maiatzaren 24an, Eibarko eta Bergarako udalek hitzarmen bat egin zuten dokumentazio hori itzultzeko, eta 2009ko azaroaren 6an bete zen, dokumentazioa bidaliz eta akta sinatuz.

Sartzeko era

Dokumentazioa Eibarko Udalari itzultzeko hitzarmena eta horri zegokion aktaren izenpetzea.

Edukia eta egitura

Irismena eta edukia

Auziak dira, auzi kriminalak, exekutiboak eta zibilak, orduko alkate arruntaren aurrean izandakoak. Horietan, alkateak lehen instantziako epailearena egiten zuen. Dokumentazio hau aztertuta, ondo azaldu daiteke XVI. eta XIX. mendeen artean Eibarko bizitza politiko, sozial eta ekonomikoa nolako zen.

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak

Erabiltzeko baldintzak

Izaera publikoko agiri-fondoa.

Edozeinen eskura dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin.

Erreproduzitzeko baldintzak

Dokumentuak erreproduzitzeko aukera dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak esaten duen baldintzetan.

Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak

Egoera onean dago. Lau kaxatako dokumentazioa ez dago egoera onean, eta han sartzeko aukera mugatuta dago.

Deskripziorako tresnak

Katalogoa.

Gehitutako dokumentazioa

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena

Eibarko Udal Artxiboa.

Kopien existentzia eta kokapena

Fondoaren kopia digital bat dago udaletxean bertan, eta beste bat, Eusko Jaurlaritzaren Dokumentu Ondarearen Zentroan.

Lotura duten deskripzio aleak

Eibarko Udal Artxiboa. Akten eta erabakien liburuak.

Argitalpenak

. – ELORZA MAISTEGI, Javier: *Eibar: orígenes y evolución (siglos XIV al XVI)*. Eibarko Udala, 2000

. – LASA ASTOLA, arantza: *Historias de las mujeres de Eibar*. Eibarko Udala, 2011

. – KALTZAKORTA ELORZA, Xabier: "1721. urteko Eibarko kopia zaharrak". *Litterae Vasconicae* (Instituto Labayru), 2011

Deskripzioaren kontrola

Araukak

ISAD(G) arauan oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

Deskripzioaren urtea

2013